



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA 2022

Gaur, urriak 15, Landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da. "Nafarroako landa eremuko erronka feminista izanen da edo ez da izanen" lelopean ospatuko dugu egun hau toki eta lurralde entitateek. Emakumeek, beren aniztasun osoan, Nafarroako landa-eremuetako lurraldeen jasangarritasunean duten zeregina eta ekarpena aitortu nahi dugu. Era berean, arras modu aktiboan lagundu nahi dugu ingurune hori eboluzioaren, garapenaren eta aurrerapenaren adibide izaten jarrai dezan, bai ekonomiaren esparruan, bai gure herri eta landa-eremuetako gizarte- eta kultura-arloan.

Testuinguru zabal horretan, emakume guztiek funtsezko eginkizuna izan dute eta dute, eta, beraz, toki-erakundeek beren bizi-kalitatea hobetzeko lan egin behar dugu, zerbitzu publikoetara sartuz eta haien aldarrikapen eta beharrei erantzunez.

Horregatik, apustu sendoa egin nahi dugu, erronka garrantzitsuak ekarriko dituen. Erronka horiek landa-eremuan lan egiteko kontuan hartzeko estrategia izanen dira, gure lurraldeetan etorkizun oparoa, bidezkoa eta baketsua eraikitzeko funtsezkoak direlako: genero-berdintasuna landa-lurraldeetan zeharka sartzea, inguru horretako emakumeen eta nesken ahalduntzea, emakumeen parte-hartze soziopolitikoak herritar aktibo eta boteretsuak izateko, lana eta bizi pertsonala uztartzea, emakumeen elkartegintzari eta berdintasunaren alde lan egiten duen elkarteei laguntzea eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatzea.



Bereziki, uste dugu lehentasuna eman behar zaiela honako gai hauei:

- Emakume gazteak kontuan hartzea, hirietara joan ez daitezzen garapen pertsonalerako eta lan-garapenerako aukeren bila.
- Emakumeak norberaren eta besteren konturako lan-merkatuan sar daitezzen sustatzea, landa-eremuan hirietan baino zailagoa baita.
- Pentsamolde-aldaketa lortzea, emakumeen eta gizonen arteko rol-banaketaren barruan bereizkeria-egoerarik sor ez dadin eta landa-eremuko emakumeen egoera pertsonala eta lan-egoera hobetu dadin. Emakume horiek ikusezin bihurtu dira, eta baserriko lanez gain, "etxeko eta familiako zereginak" ere emakumeek egin beharreko lanen gisa ikusi izan da beti.

Azken finean, toki-erakundeek gure ahaleginak bateratzen ditugu landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko. Horretarako, emakumeen ahalduntzean aitzinera egin behar da, eta emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa areagotu behar dira bizitzako eremu guztietan. Landa-eremuko emakumeak agerian eta aintzat hartuak izatea da gure konpromisoa, eta, horregatik, bat egiten dugu emakumeen elkarteak egiten ari diren lanarekin eta haien aldarrikapenen alde egiten dugu.

Etxaurin, 2022ko urriaren 15ean


Idora Aritzala Etxarren
Etxauriko alkatea

